

HAURREN PARTAIDETZA IKASTETXEETAN



Aurkibidea

Sarrera	3
Oinarriak	4
Eta zuk, zer pentsatzen duzu haurren partaidetzari buruz?	5
Haurren partaidetzak dakartzan onurak	6
IDEIAK ETA ESTRATEGIAK IKASTETXE PARTE-HARTZAILE BAT IZATEKO	10
1. HEZKUNTZA-ERAGILEAK	14
2. IKASGELA EDO TALDEA	16
3. INSTITUZIOA	18
4. INGURUNEA	23
Erreferentziak	26

Sarrera

UNICEFen eskubideen hezkuntza-programa elkarren menpeko lau eremutara dago bideratuta: haurren eta herritartasun globalaren eskubideen ezagutza, haurren partaidetza, babesa eta eskola-giroa.

Haurren Partaidetzaren eremuari lotutako printzipioak, programak oinarritzat dituenak, hauek dira:

- Haurrek eta nerabeek informatzeko, adierazteko eta parte hartzeko duten askatasuna aktiboki erabil dezaten sustatzea.
- Haurrek jolasteko eta beren adinari dagozkion aisiako jarduerak burutzeko duten eskubidea sustatzea, baita bizitza kulturalen, artistikoan eta ingurumenean parte hartzeko ere.

Haurren partaidetza eskolan ez da lan bat edo proiektu bat gehiago, jada garatzen doazen eskolako lan piloari gehitu behar zaiona. Haurren partaidetza ez da eskolako *egiteko* bat (edo *gehiago egitekoa*), eskola izateko modu bat baizik. Partaidetza izaerak **barneratzen** duenean, hauek ere barne hartzen dute: irakasleek, haurrek, zuzendaritzak, sukaldariak, eskolazainak, espazioek,... Hiri demokratiko txiki bat bilakatzen da eskola, eta eraginkortasunez funtzionatzen du, eta kohesio soziala dago berdinen artean eta bertan elkar bizi diren belaunaldi desberdinen artean. Eta, batez ere, haurren eskubideak, beste inon ez bezala, errespetatzen dituen leku bilakatzen da.

1. Ikasle bakoitzak bere burua eta besteak pertsona duintzat hartzea sustatzea: eskubideekin eta erantzukizunekin.
2. Haurraren nortasunaren, trebetasunen eta adimenaren eta gorputzaren garapenarekin konpromisoa hartzea, dituen ahalmenen goren mailara arte.
3. Munduan giza eskubideen betearazpenak kezka eragiten dien herriarrak era daitezen sustatzea.

Ezagutza

6. Neurri araugileak, antolamendukoak eta hezigarriak hartzea, beharrezkoak babesa bermatzeko tratu txarraren, umilazioen eta sexu-abusuen aurrean, edozein motako aurreiritzi fisiko edo mentalen arriskuak prebenitzeko. Era berean, haurren ezagutza sustatzea beren ingurunean dauden arriskuei buruz, eta nork bere burua babesteko neurrien garapena sustatzea.
7. Babesa bermatzea diskriminazioaren aurrean, edozein motakoa izanik ere, kultura, erlijioa, jatorria, hizkuntza, sexua dela-eta.

Haurren babesa

4. Haur eta nerabeek informazio, espresio eta parte hartze askatasunaz aktiboki disfruta dezaten sustatzea.

Parte hartzea

5. Haurrek jokoaz disfrutatzeko duten eskubidea sustatzea, baita euren adinerako egokiak diren ekimenez ere, eta kultura, arte eta ingurumen ekimenetan parte hartzea ere sustatzea

Eskola-giroa

8. Hezitzaileek, familiekin eta eskola-komunitateak oro har haurrak eta nerabeak gida ditzaten eta lagundu diezaiezen sustatzea, haien eskubideak eta erantzukizunak betetzean, haien gaitasunen arabera, eta uneoro haurraren interesa goren mailan egon dadin zainduz.
9. Pertsonen arteko ingurune bat sortzea, balio hauek sustatuko dituenak: berdintasuna, pertsonen duintasunarekiko errespetua, osasuna eta bizikidetzak baketsua.

Oinarriak

Haurren partaidetzari buruz jadanik dakiguna

Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak (1989) ondoko artikuluetan jasotzen du haurrek parte hartzeko duten eskubidea:

- 12. artikulua: Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea.
- 13. artikulua: Adierazpen askatasuna.
- 14. artikulua: Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea.
- 15. artikulua: Elkartzeko askatasuna izateko eskubidea.
- 17. artikulua: Informatua izateko eskubidea.

Gaiari buruzko egile ospetsuek, haien artean Roger Hart irakasleak, honela kontzeptualizatzen dute:

Partaidetzak berekin dakar norbere bizitzan eta bizi garen **komunitateko bizitzan eragina duten erabakiak partekatze**ko prosezua. Partaidetzaren bitartez eraikitzen da demokrazia eta funtsezko irizpidea da demokraziei buruzko iritzia bat emateko garaian. Partaidetza herritarren **funtsezko eskubidea** da (Hart, 1992, 5. or.).

Definizio hori hautatu badugu, beste askoren artean, arrazoi hauengatik izan da:

- Lehenik, **erabakiak partekatzeaz** hitz egiten du. Erabakiak hartzean inplikatu egiten ditu haurra zein heldua, biak jabetzen direnean **gai batek eragiten diela** beren bizitzan edo beren komunitatean. Partekatzen duten komunitate bat da, eta bertan guztiak dira kide.
- Jarraian **demokrazia** eraikitzeaz hitz egiten du. Demokrazia sistema eraginkortzat hartuta, non, behar bezala funtzionatzen duenean, komunitateko kide guztiek laguntzen duten, bertan egoteko duten modutik makineriak funtzionatu dezan.

Zergatik sustatu behar da partaidetza eskolan?

Eskola espazio hobezina da aukera-berdintasuna eskaintzeko eta haur guztiek, nondik datozen edo nora doazen alde batera utzita, ezagutu, bizi eta goza dezaten **testuinguru demokratiko bat, bide emango duena norbanakoaren eta taldearen eskubideak eta erantzukizunak ikasteko, herritar kritiko eta pentsalari gisa elkar aditzeko, berdintasunean bizitzeko inolako diskriminazio motarik gabe, eta beren gaitasunak indartzeko**. UNICEFek (2003) adierazi zuen aspaldian ikastetxea zela garrantzi handiena zuen partaidetza-eremua, *Haurren munduko* egoera bere txostenean; izan ere, haurren partaidetza zen gai nagusia edizio hartan.

Herritarrak sortzeko eta ariketa demokratikoa egiteko testuingurua da eskola, eta funtsezko hiru asmok gidatu beharko lukete (Liwski, 2006):

- a) ikaskuntzak garatzea, ikasleei aukera emango dietenak **herritar oso izateko erantzukizuna**;
 - b) bizi-estilo batekiko **pertenentzi sena** sustatzea, konfiantzan eta partaidetzan oinarrituta;
 - c) kultura demokratiko bat sortzea, **esklusioa eta diskriminazioa ezabatuko** dituen bere adierazpide guztietan.
- “Partaidetzan”, “partaidetzarako” eta “partaidetzatik”** hezten duten irizpideak ezartzeko leku aproposena da eskola.

Eta zuk, zer iritzi duzu haurren partaidetzari buruz?

UNICEFek ebatzi zituen jada mitoetako batzuk haurren partaidetzari buruz, aurretik aipatu dugun txostenean. Hala ere, zehazki, haurren partaidetzari buruz pentsatzean ikastetxeetan sortzen diren sinesmen edo zalantza batzuetan oinarrituko gara. Ikerlanean urteak eman ondoren dokumentatu izan diren sinesmenak eta zalantzak dira. Haurren partaidetzan oinarritu diren

azterlanek informazio ugari bildu dute ikastetxeetara egindako bisitaldietatik, irakasleei, haurrei eta nerabeei, gurasoei, eta hezkuntza-komunitatean inplikaturako eragileei egindako galderetatik abiatuta. Horietatik abiatuta¹ sortzen dira haurren partaidetzari buruzko sinesmenak, jarraian aurkeztuko ditugunak eta erantzun bat eman behar zaienak.

“Moda berri bat da partaidetza, beste zeregin bat gehiago”.

Onurek bi noranzko hartzen dituzte: eragina dute bai irakasleengan bai ikasleengan. Hezkuntza ulertzeko modu bat da partaidetza.

Badira baikor izateko arrazoiak, begien bistakoa baita mundu osoan hartu izan diren ekimenek erakusten dituztela haurrek barnean eta inplikatura egoteko duten gaitasuna eta nahia. Gaur egun, askoz ere gehiago hartzen dira kontuan haurren jakituria eta esperientzia egiten dituzten ekarpenetan, esaterako, gai politikoetan. Horren adibide ditugu haurren udal kontseilu ugariak, Espainiako 170 herritan baino gehiagotan, edo haurren partaidetza Diputatuen Kongresuko jardunaldi parlamentarioetan². Haien ahotsei eta inplikazioari esker sormen handiagokoak dira erantzunak, joriagoak, egokiagoak, inklusiboagoak... , azken batean haurren partaidetzak erabaki hobeak dakartza berekin eta nabarmendu egiten du haiek duten gaitasuna herritar diren aldetik , baina irakasleei ere egiten diete ekarpena: haienganako konfiantza irabazten dute baita hezkuntza-konpromisoa ere. Beraz, bada garaia ikasitakoa kontuan hartzeko garatu izan diren haurren partaidetza-esperientzia guztietan eta estrategiak praktikara eramateko ere oztupoak gainditzeko, baita hurbilketa efektibo bat bermatzeko ere, partaidetza egoki bat lortze aldera.

1. Haurren partaidetzari buruzko azterlanak: Agud (2014), Coiduras et al. (2016), Lansdown (2001), Matthews (2003), Novella (2008), Percy-Smith (2005), Susinos eta Ceballos (2012), Thomas (2007), Urrea (2017).

2. Haurren Partaidetzako Kontseilu Nazional bat eskatzen dute haurrek Diputatuen Kongresuan, Madril, 2017ko urtarrilak 25. Iturria: https://www.unicef.es/prensa/ninos-participan-congreso?gclid=CjwKCAiA1uHSBRBUEiwAkBCtzYpulJ4xSHZ_Zwehi_eO3pX_YAg49RhI9z70DEh_B-g72dLKhNG1QRoChU8QAvD_BwE&gclid=aw.ds

Eta zuk, zer pentsatzen duzu haurren partaidetzari buruz?

“Haurren partaidetza aparteko zerbait da; ez du batere zerikusirik erakutsi beharreko edukiekin”.



Haurren partaidetza irakasleen erantzukizuna da, herritartasun globalaren garapenari lotua.

Haurren partaidetza, eskubidea bat ez ezik, hezkuntzako printzipio bat eta balio demokratiko bat da ere. Historikoki, haurren partaidetza erreferentzia nagusietako bat izan da hezkuntzako esperientzia berritzaileen esparruan. Berdintasun-maila handiagoak ahalbidetzen ditu, aukera ematen duelako dibertsitateari ikusgarritasuna emateko, adibidez, ikuspegi batzuk bakarrik arau orokor bihurtzea saihestuz. Eskola inklusiboan, haurren partaidetza eguneroko bizitzan sartzen den elementua da, ikasle guztien presentzia eta partaidetza sustatzen dituena, eta, beraz, bakoitzak dituen gaitasunak agerian utzi eta aberastasuna ematen diona taldeari, desberdintasunen gainetik nabaritasuna ematean. Gainera, haurren garapen pertsonala bultzatzen du, ondokoak nagusi diren esparru batean: askatasuna, beren buruarekiko konfiantza, prestakuntza balioetan, bizikidetzaren hobekuntza eta taldearekiko konpromisoa. Norberaren, taldearen eta komunitatearen garapenaren muina da haurren partaidetza. Herritar on batek ezagutu, bete eta defendatu egiten ditu bere eskubideak. Herritar on batek, gainera, konpromisoa hartzen du gainerakoen ongizatearen hobekuntzarekin, eta gizartea eraldatzea da bere nahia. Kide garen komunitateetan eta guneetan gure eskubideak erabiltzeko eta haien aurrean erantzule izateko aukera ematen digutenean eratzen gara herritar gisa. Herritar-gaitasuna sustatzea irakasleen erantzukizuna da. Eta, hain zuzen ere, haurrak parte hartzeko gaitasuna duten eta beren herritartasunaren erantzule diren pertsona bezala aintzatetsiak izatea, beren eskubideak garatzeko eta erabiltzeko behar duten ahalmena emateko helduek duten gaitasun urriarekin batera, horiek dira topatzen ditugun oztopo nabarmenenetako batzuk ariketa honen garapenean. Ahaleginak egin badira ere, legegintzaren esparruan, praktikan eta politikan, haurren partaidetza bultzatzeko eta hobetzeko, erronka bat izaten jarraitzen du, baita gizarte demokratikoenetan ere. Irakasleon eginkizuna da bermatzea eskola bakoitzean sustatzen direla balio demokratikoak, pentsamendu kritikoa, inklusio soziala, herritartasun aktiboa, kultura politikoa eta, jakina, partaidetza demokratikoa. Prest gaude, beraz, komunitatean harreman horizontalak sorrarazteko?



“Haurrek jadanik nahikoa parte hartzen dute eskolan”.

Ikastetxeetan maila desberdinei buruz hitz egin dezakegu.

Haurren partaidetza, izan ere, errealtate bat da ikastetxe askotan. Dena den, partaidetza-maila desberdinak daude: Zein mailatan daude zure gelako ikasleek? Eta zure ikastetxeek? Haurren partaidetzak ezin du anekdotikoa, ausazkoa, puntuala izan behar, erantzun holistikoa eta zeharkakoa eman behar baitu, haurra izan dadin ekintzan elementu nagusia, bere burua ezagutzeko eta ikasgelako, ikastetxeko eta komunitateko bizitzan hark eragina izateko, baita bere ikaskuntzaren eta garapenaren prozesuan ere.

Partaidetza horrek forma desberdinak har ditzake. Siplea oinarritzkoena da, non haurrek ikusle gisa hartu ohi duten parte jarduera batean. Aholkua eskatzean oinarritutako partaidetzak aurrerapauso bat gehiago eskatzen du eta bide ematen dio haurrari iritziaik emateko, proposamenak egiteko edo zuzenean nahiz zeharka eragiten dioten gaiak balioesteko. Partaidetza-maila handiagoek –proiektiboak adibidez– aukera ematen diote haurrari proiektuaren erantzunkide izateko eta “ekimenen sortzaile” bihurtzeko, aldaketaren eragile, alegia. Eta hortik sor daiteke meta-partaidetza, non haurrek eskatu eta sortuko dituzten gune eta mekanismo berriak parte hartzeko. Horretarako, haurren partaidetza-esperientziek printzipio argiak eta oinarritzko arauak ezarri behar dituzte, nola hartuko diren erabakiak, nortzuek hartuko dituzten, eta helduen eta haurren arteko harremana nolakoa izango den definitzeko. Haurrak bere partaidetzaren bitartez konfiantza eta gaitasunak irabazi ahala handituko da berak dituen interesak zehazteko duen nahia. Proposamen praktikoetan ikusiko ditugu partaidetza-maila desberdinetarako estrategietako batzuk.

Eta zuk, zer pentsatzen duzu haurren partaidetzari buruz?

“Partaidetza haurren ordezkariak eta eskola-kontseiluek ordezkatzeko dute jadanik”.



Haur guztiek, ez bakarrik ordezkariak, izan behar dute parte hartzeko aukera.

Aintzat hartzen baditugu haurrak ekintzaren muina eta beren garapenaren protagonista bezala, ezin dugu pentsatu “ordezkaritzan” bakarrik oinarritzen den partaidetza batean. Ikasleetako bakoitza eta guztiak dira eskola. Haur bakoitzak bere esperientzia du eta beharrezkoa da guztien ahotsak entzutea, esperientziak desberdinak direlako. Ikasle bakoitzaren ahotsa berdingabea eta beharrezkoa da, ahotsik gabe ez dago ekintzarik, ezta partaidetzarik ere. Beraz, ez da nahikoa ordezkariak edo aitzindariak, nekez ordezkatu ahal izango baitituzte ikaskide guztiak. Beharrezkoa da ikasgelan lidergoa banatuta egotea ikasgela osatzen duten talde desberdinen artean, ikasle nabariak eta gutxiengoak diren taldeetako ikasleak hartu behar ditu barnean. Partaidetza, hala ere, guztien partaidetza ahalbidetzen duenean bilakatzen da inklusibo. Horretarako, pentsatu beharra dago, parte hartzeko moduetan ez ezik, ahots guztiak bilduta daudela eta ikastetxean nabaritasuna ematen zaiela lagundu eta bermatzeko moduetan ere. Denen artean eraikitzen da partaidetza, eta ez da nahikoa ordezkariak geratzen ikasle batzuetan bakarrik kontzentratzen denean. Hierarkikoak ez diren egiturak sortuz gero, non inork ez duen lider bat edo ordezkari bat, guztiek ordezkatu ditzakete besteak abagune desberdinetan eta guztiek garatzen dituzte rol desberdinak.

“Haurrek jolastokian parte hartzen dute eta hala ere ez dituzte bizikidetzako arauak betetzen”.



Parte hartzeko eszenario desberdinak daude eta beharrezkoa da haietan guztietan ikasleak parte aktibo izatea.

Anitzak dira ikastetxean haurrek parte hartzeko dituzten eszenarioak. Ikasgelan sustatu egiten du erabakiak hartzeko eta hausnartzeko gaitasunak garatzea. Ikastetxean, haurren arteko bizikidetzak, elkarriketa eta kohesioa garatzea sustatzen ditu. Komunitatean oraingo herritartzat hartu behar dira haurrak, baita beren ikuspegiak adierazi eta kontuan hartuko diren komunitateko kide aktibotzat ere. Hala ere, zenbaitetan, ikastetxeak edo komunitateak inposatutako bizikidetzak eta jardun egokirako arauak ez datoz bat haurren interesekin eta horren eraginez ez dute ikusten aintzat hartzen dituztenik ezta ordezkariak daudenik ere. Nola jardun ados jartzeko? Partaidetza lagungarria izan daiteke bizikidetzak hobetzeko, baldin eta denontzako arau horiek eraikitzeke aplikatzen bada. Adibidez, kursoaren lehenengo egunetan, ikasleek asanbladan kontsentsu bidez adosten dituzte ikastetxeke jolastokia zuzenduko duten arauak ikasturtean zehar. Horrela, sustatu egiten da partaidetza, aintzat hartzen da haurra parte aktibo gisa eta lortu egiten da haurren aldetik arau horiek inposaketa bat balira baino haiekin eta besteekin zerikusia duen zerbait bezala ikustea, haiek ere erantzukizuna badutela antzemanaz. Gainera, eszenario bat itxuratzen du, non haurrek ezagutu egiten dituzten irakasleen eta komunitatearen kezak, baita ikaskideenak ere, eta gehiago hurbiltzen dituzte gainerako guztiengana.

Eta zuk, zer pentsatzen duzu haurren partaidetzari buruz?

“Haurrak ez dira nahikoa heldu beren kasa iritzi bat eratzeke eta erreaz manipulatu daitezke”.



Parte hartzeko modua heldu-zentrismoak baldintzatzen du. Haurrak partaidetzaren subjektu dira.

Haurrak heldu izatera iritsi arteko garapena errespetatu egin behar da eta ulertu egin behar da, beraz, mailaz-mailakoa dela partaidetza. Hala ere, mailaz-mailakoa izateak ez du esan nahi zain egon behar denik eta onartu gai batzuk egon daitezkeela non ezin izango duten parte hartu adinez nagusi diren arte. Mailaz-mailakoa esan nahi du iritziak beren kasa nola eratu erakutsi behar zaiela, euren iritzia nola ezagutzera eman, nola errespetatu gainerakoen iritziak; azken finean, parte hartzen lehenbailehen erakusten bazaie, hobe. Haurrek parte hartzen duten ekimenetan, askotan, irakasleak izan ohi dira buru. Hala, haurren ikuspegia barneratzeak sorrarazi egiten du autonomia, ahaldundu egiten du, kohesionatu egiten du, konfiantza handiagoa transmititzen die ematen zaien erantzunean eta utzi egiten zaio hezkuntza inposatutako zerbaitek balitz bezala ikusteari. Garrantzizkoa da haurrei ematen zaien informazioak formatu egokia izatea eta interesatzen zaien gaietan parte hartzeko aukera ematea, baita haiek motibatzea ere a priori haiei ez dagokiela “pentsatzen den” gaietan interesatu daitezkeen. Baina, gainera, sustatu egin behar da elkarrizketa haurren eta erabakiak hartzen dituztenen eta mezua beste leku eta espazio batzuetara helarazten dutenen artean. Ohi denez, haiek kontuan hartu gabe ematen da mezua. Haien partaidetzak curriculumaren eremuan bezain besteko garrantzia du bizikidetzaren, ikastetxeko antolamendu eta kudeaketaren edo irakaskuntza hobetzeko ekimenen eremuan.

“Partaidetzak tirano txiki batzuk izatera eraman ditzake”.



Parte hartzea eskubide bat da eta, aldi berean, eskubide horren erantzule izaten ikastea eskatzen du hezkuntza-prozesuan.

Haurrek eskubideak dituzte jaiotzen diren unetik, eta bizi diren gizartearen betebeharra da haurren eskubideak haiei dagozkiela aitortzea. Inork ezin du eskubideak eman edo ez emateko hitza, eta inork ezin ditu baldintzatu; berdinak dira guztiontzat, haur zein heldu izan. Partaidetza aintzatesteak ahotsa ematea esan nahi du, eta haurrek parte hartu ahal izatea haiei eragiten dieten arlo guztietan; baina, gainera, esan nahi du ikusarazi egin behar zaiela eskubide horrek erantzukizun bat dakarrela berekin, eta onartu eta berena egin behar dutela gutxika hezkuntza-prozesuan zehar. Parte hartzeko eskubideak partaidetzarekiko erantzukizuna eskatzen du. Adibide gisa, esate baterako, haurrei eta nerabeei erakutsi behar diegu iritzia emateko eskubidea dutela baina, aldi berean, lagundu egin behar diegu prozesuan, haiei erakutsiz landuko duten diskurtsoak koherentea izan behar duela, eskubide hori erabiltzeak eskatzen duen erantzukizunaren parte bat bezala oinarritua. Bestalde, batek eskubide hori duela ulertzeak ahalbidetu egiten du beste batzuek ere eskubide hori dutela ulertzea eta, ondorioz, errespetu handiagoa erakustea gainerakoen eskubideen aurrean. Baldin eta irakasleak parte hartzeko baimena ematen badie haurrei, horrek autonomoago eta arduratsuago egingo ditu dagozkien gai guztietan, baita irakaskuntzan ere. Parte hartzeak sustatu egiten du ikasten dutenaren aurrean erantzukizuna hartzea, gainerakoen ikaskuntza ere errespetatzea eta ikaskuntza horiek eskuratzen besteei laguntzea.

Eta zuk, zer pentsatzen duzu haurren partaidetzari buruz?



“Haurrek irabazi egin behar dute parte hartzeko eskubidea”.

Parte hartzen ikasten da partaidetza eta parte hartzeko modu desberdinak daude.

Ezin dugu zain egon haiek beren kasa parte hartzen ikasi arte. Norbaitek utzi behar die parte hartzen, baina, batez ere, parte hartzen erakutsi behar zaie. Aukera hori ematen ez bazaie, nekez ikasi ahal izango dute parte hartzen. Hasteko, ikasleen partaidetza eskatzen duten ekintzak planifikatzeetik hasi behar da eta, gutxika, erantzukizuna eta eskubidea eskuordetzeari ekingo zaio, partaidetzaren gainean dugun kontrol horri ere uko eginez. Beren bizitzako rol protagonista hori txikitandik hartzen ez badute —atzean utzi gabe parte hartzeko eskubideak dakartzan erantzukizunak— zaila izango da nerabe izanda parte hartu nahi izatea edo parte hartzen jakitea. Ahozkoa da parte hartzeko formaturik ohikoa; hitzetik harago doa, ordea. Anitzak dira haurrek parte hartu ahal izango duten formatuak. Ez du beti zertan ahozkoa izan. Baliteke haur batzuek nahiago izatea beste formatu batekin espresatu eta irakasleek espazio egokia eskaini behar diete horretarako. Hain ohikoak ez diren beste formatu batzuk hauek dira: idatzizkoa eta irudikapen bisuala edo plastika. Haur Hezkuntzan, baita Lehen Hezkuntzan ere, ekintza da gogokoen duten formatuetako bat. Bertan, ekitea eskatzen du partaidetzak. Bigarren Hezkuntzan, formatu digitalari ematen zaio lehentasuna, edo multilengoiaren formatuari, adierazteko, komunikatzeko eta eraikitze moduak integratzen dituenari.



Haurren partaidetzak dakartzan onurak

Haurren partaidetza-esperientziak bizi izan dituzten haurrak eta nerabeak ados daude honetan: partaidetzak ekarpen handia egiten dio norbanakoaren, instituzioen eta komunitateen garapenari, eta beheko irudia dugu horren erakusgarri. UNICEFen (2003) txosteneko ondorioen arabera, prozesu bat da partaidetza, eta hauek dira egiten dituen ekarpenak:

- Haurrek duten gaitasuna areagotzen du beren iritziak eratzeko eta adierazteko, aukera desberdinen artean aukeratzeko eta erantzukizunak beregain hartzeko.
- Sustatu egiten ditu balio demokratikoak eta prestatu egiten ditu haurrak herritar global gisa dituzten zereginak betetzeko.

- Lagundu egiten du elkar errespetua, tolerantzia eta dibertsitatearen onarpena handitzen.
- Sustatu egiten du negoziazioa eta lagundu egiten du gatazkei aurrea hartzen.
- Sustatu egiten ditu haurrenganako errespetua eta aintzatespena berezko eskubidea duten pertsona diren aldetik.
- Areagotu egiten ditu haurren aldeko esku-hartzeen eraginkortasuna eta iraunkortasuna.



KOMUNITATEA

- Gizartearen demokratizazioa (Wright et al., 2011)
- Gizarte kohesionatua (UNICEF, 2003)
- Belaunaldi arteko harremanak hobetzea (Chawla, 2001)
- Komunitatearen garapena (Hart, 1992)



IKASTETXEA

- Berrikuntza (Wright et al., 2011)
- Erantzun hobea premientzat (Kirby et al., 2003)
- Haurren Eskubideekiko Arreta (Agud, 2014)
- Hobetu eta arindu egiten du bere funtzionamendua (Kirby et al., 2003, Wright et al., 2011)



PERTSONAK

- Herritartasun globalerako gaitasunak (Wright et al., 2011, Kirby et al., 2003; Hart, 1992)
- Ongizate Subjektiboa (Chawla, 2001; Unicef, 2003; Casas eta Bello, 2012; Agud, 2014)
- Ahalduntzea (Soler et. al., 2017 Agud et al. 2017)
- Hezkuntza balioetan (Novella eta Trilla, 2014)



IDEIAK ETA ESTRATEGIAK ESKOLA PARTE- HARTZAILE BAT IZATEKO

Ondoren estrategia-multzo bat proposatzen dugu eskolak haurren partaidetza bultzatzeko prozesuan gidatzeko.



1. HEZKUNTZA-
ERAGILEAK

2. TALDEA EDO
IKASGELA

3. INSTITUZIOA

4. INGURUNEA

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

Proposamena eskola parte-hartzaileetan urteak lan enpirikoa egitetik sortua da (Agud, 2014; Novella, 2008; Trilla et al. 2014; Urrea, 2017). Urteetako esperientzia duten eskoletako jardun egokiak bildu

ditugu eta ardatz komunak aztertu eta deskribatu ditugu eskola parte-hartzaile modu bat martxan jartzeko garaian. Aztertutako eskolen profilak eskema honi jarraitzen dio:

Pribatua - Itunpekoa		Publikoa
Hezkuntza-maila	Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa (3 – 18 urte)	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (3 – 12 urte)
Lerroak	Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako hiru lerro. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako bi lerro	Haur Hezkuntzako lerro bat Lehen Hezkuntzako lerro bat

Eskola parte-hartzaileetan beharrezkoa da ikastetxearen barruan partaidetza-egitura sendo bat diseinatzea, egoera desberdinetara zuzendutako ekintzen bitartez:


- a. Ikasgela edo taldea: Espazio eta estrategia pedagogikoak eta didaktikoak sortzea egunerokotasunean haurren partaidetza bultzatzeko.
- b. Ikastetxea: Ikastetxearen Heziketa Proiektuan, Antolamenduan/Organigraman eta Ikastetxe Kulturean esku hartzea.
- c. Komunitatearen ingurunea: Haurren partaidetza eskolatik harago –proiektuak komunitatean eta harremana tokiko administrazioarekin–.

Ez dira ekintza puntualak edo egun bakar batean burutuko direnak, egitura-aldaketak eskatzen dituzten estrategiak baizik, partaidetza eskolaren egunerokotasunera moldatzearren. Ikuspegi ekologiko batetik abiatuko gara proposamen honetarako, ikastetxearen makro-, exo-, meso- eta mikro-sistema hartzen baita kontuan. Nahiz eta, eskola bezala, eskola parte-hartzaileago baterako aldaketan, zuen lehentasunak erabaki ahal izango dituzuen, baita egokienak iruditzen zaizkizuen egoera horien gaineko estrategiak hartu ere.



Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

Eskolako partaidetzarako **kontsolaren metafora** erabiliko dugu (beheko irudia). Bertan, sakagailu bakoitzak sistema edo egoera bat adierazten du, eta bere gainean aktibatu/bultzatuko dugu partaidetza:



Ikastetxean, **SAKAGAILU MAGENTA** topatuko dugu, estrategiak aktibatzen dituen, hezkuntza-eragileen, ikastetxeko langileen, ikasleen eta familien artean ezartzen diren harremanek partaidetza bultzatzen duen.

SAKAGAILU LARANJA: estrategia pedagogikoak eta didaktikoak, ikasgelan edo taldean aplikatzeko eta haurren partaidetza egunerokotasunean sustatzeko.

SAKAGAILU GRISA: testuinguru makroa da, instituzioa, ikastetxea kudeatzeko eta antolatzearen duen modua, heziketa-proiektua eta proiektu espezifikoak.

SAKAGAILU BERDEA: komunitatearen ingurunean sartzen diren eskolatik harago dauden partaidetzazko

ekintzak, komunitatearekin eta tokiko administrazioarekin ezartzen diren harremanen bitartez.

Horrek guztiak eratzen du eskola parte-hartzaile bat, hezkuntza-komunitateko kide guztiek partekatutako orientazio-sistema, historikoki transmitituko diren esanahieredu bezala (arauak, balioak, sinesmenak eta abar). Balio kolektibo bat eta ikastetxean haurrek dituzten eskubideei zentzua ematea.

Bere osotasunean parte-hartzaile den eskola batean, kontsolaren sakagailu guztiak egongo lirateke aktibatuta. Baina beti da hobe argiren bat aktibatuta edukitzea denak itzalita edukitzea baino; beraz, eskola gisa erabakiko duzue zein botoi sakatu zuen ikastetxean partaidetza bultzatzeko.

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

1. HEZKUNTZA-ERAGILEAK

Hezkuntza-eragileen, ikastetxeko langileen eta ikasleen artean sortzen den harremana.

Hezkuntza-eragileak –hezitzaileak, irakasleak, familiak, zerbitzu-langileak, hezkuntza-komunitatean elkar bizi diren eta kide diren heldu guztiak– funtsezko elementuak dira haurren partaidetzan, eta ahalbidetu egiten dute partaidetza hori benetakoa izatea. Hezkuntza-eragileen jokabideak eragina du eskola-mota bat edo bestea definitzen duten jardunetan, eta partaidetza benetan posible izaten laguntzen dute, prozesuan zehar haurrei irimotasuna eta laguntza eskainiz. Hezkuntza-eragileentzako ondoko ideiak eskola parte-hartzaileetako haurren ahotsetik sortuak dira.

Talde-kudeaketa

Haur bakoitzak dituen ahalmenen eta interesen dibertsitatearen aurrean begiak zabal-zabalik izatea. Moderazio on bat egitea haur guztien partaidetza bultzatzeko, haur guztiek esperientzian partaidetza-maila bera izatea lortzea, guztiak taldearen barruan sentitzen direla bermatzea.

Dibertsitatean arreta jartzea

Baldintza honek begirada bikoitza du; batetik, esperientziek inklusiboak izan behar dute, mundu guztiak parte har dezake bakoitza den horretatik abiatuta, norberaren ahalmenak baliatuz guztiek izan dezaten leku bat, frustraziorik gabe, partaidetza horretan.

Gainera, partaidetzazko metodologiek, dibertsitate hori lantzen ez ezik, bakoitzak dituen gaitasun bereziak identifikatzen ere laguntzen dute, eta era horretan ematen zaio bide esku-hartze egokituago eta pertsonalizatu bati.

Dibertsitatea lantzea lagungarria da inork bere burua baztertua ez ikusteko, bakoitzak eroso sentitzen den rol bat aurkitzeko. Parte hartuz lan egiten denean eta haur bakoitzaren espezialitateak antzematen direnean, hobekuntza bat ikusten da ikastetxeko bizitzaren beste alderdi batzuetan ere.



Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

Haurren gaitasunak aintzatestea hezkuntza-komunitatean ekarpen bat egiteko

Entzute aktiboa barne hartzen den lekua, baita haurrentzako hizkuntza ulergarri baten erabilera eta haurren erabakiak aurrera eramatea ere, eskola aktibo horren emaitza gisa.

Entzute Aktiboa

Pazientziaz eta kontuz entzunak izatea eskatzen dute haurrek. Helduak haien ahoskera, haien hezkuntza, haien kultura ulertzea eskatzen dute, eta haiek egiten dituzten ekarpenak beren pentsamendu-matrizeari gehitzeko prest egotea. Helduen betebeharra da ikaskuntza hori egitea, haurrek egiten dituzten ekarpenak entzuteko duten gaitasuna areagotzea. Aktiboki entzuteak esan nahi du bestearen argumentua aintzat hartzea, bere ideia balioestea, kontuan hartzea, eta horrek ez du nahitaez haren nahia betetzea berekin ekarri beharrik.

Manipulaziorik Ez

Haur askok aipatu zuten behin baino gehiagotan eurek berez pentsatu ez zituzten proposamenak egiten ikusi dutela beren burua, helduak izan zirelako ideia hori eman zietenak. Horrekin esan nahi dugu, zentzu horretan, heldua bere onurarako erabiltzen ari dela partaidetza. Hortaz, oraindik ere, eta nahi gabe beharbada, haurren ahotsean helduen interferentziarekin egiten dugu topo.

Helduek bigarren ikaskuntza hori egin behar dute haurren aintzatespenaren esparruan, haurren berezko ideiak eta iritziak errespetatzeko konfiantza izan behar baitugu haien pentsamenduan.

Harremanetan laguntzea

Partaidetzaren esperientziak sortu behar duen giroan lagundu egin behar da parte-hartzaileen arteko harremanetan, historia beraren parte direlako eta helburu bera lortzeko lankidetzan ari direlako. Kritika konstruktiboa sustatzea, enpatia bultzatzea, elkarriketa sendotzea da xedea.

Belaunaldi artean lan egitea (elkarlana, lankidetz...))

Belaunaldi arteko oztopoak apurtzea funtsezkoa da haurren partaidetzaz ari garenean, zeren eta, beste adin batzuetako gizabanakoekiko harremanak sustatzeak, batetik, hautsi egiten baitu haurren beldurra haiek baino zaharragoa den bati ikuspegiak proposatzeko edo kritikatzeko, eta alderantziz, horrek ohitu egiten du heldua haurren hizkuntza ulertzera, entrenatu egiten du haurrei entzuteko garaian eta haur herritarraren pentsamendua bere pentsamendu-matrizean eta jokabidean barneratzeko garaian. Haurrengan nabaria den ezaugarri horrek suspertu egiten du berdintasunean oinarritutako errespetua adin guztietako pertsonekiko, elkarrekiko errespetua partaide guztien artean. Hala, lagundu egingo diote elkarri eta aukerak sortuko dira elkarriketarako gaitasunak pixkaka garatzeko.



Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

2. IKASGELA EDO TALDEA

Ikasgelan edo ikasgelako taldean aurrera eraman daitezkeen estrategiak eta haurrak inplikatzeko dituztenak erabakiak hartzean, elkarlaneko ikaskuntzan, hausnarketan eta elkarriketan.

Ikasgelako asanblada

DESKRIBAPENA: Asanbladan talde/ikasgela bateko kide guztiei bizikidetzan eta lanean aurrera egiteko garrantzizkoa iruditzen zaien horretaz guztiaz hitz egiten da. Elkaraldi horretan taldea elkarriketan aritzen da, gauzak nola dauden aztertzen ditu, ekintza zehatzak antolatu eta planifikatzen ditu, bere harremanak eta sentimenduak hausnartu eta berregokitzen ditu talde gisa sendotzeko.

EGINKIZUNAK:

- Hitza hartzea iritzien eta emozioen bozgorailu gisa. Iritziak trukatzeko modu bat da gehitu eta aldatzen duten gauzak egiteko. Kezkarazten dituzten gaiak buruzko iritzia elkarri adierazteak garrantzizkoa iruditzen zaion hori zer den esateko aukera ematen dio taldeari.
- Bizikidetzaren kudeaketan inplikatzeko. Taldeko bizitzak gertatzen denaren eta gertatu denaren analisi kritiko bat egitea eskatzen du, taldearen funtzionamendua antolatzeko. Zer egin eta elkarrekin nola jarraitu zehazteko gunea. Asanbladaren eginkizuna da taldeari ahalmena ematea bere kasa antolatzeko eta bizikidetzako bere harremanak arautzeko.
- Taldearen bizitza antolatzea proiektu kolektiboa itxuratzeke. Ikasgelako lanean aktiboa izatea, taldeari dagozkion ekintzetan, jardueretan eta proiektuetan. Asanbladaren eginkizuna da proiektuak diseinatu, antolatu eta burutzeko garaian erabakiak hartu ahal izatea. Taldearen lana itxuratzea, erabaki hauetatik abiatuta: nola antolatuko garen maila mikroenetik (ikasgelako karguak) maila makroenera (festak edo proiektu solidarioak).
- Ikasgela bezalako harreman-gune batean parte aktiboa eta konprometitua izatea. Komunitatea baloratzeko eta bertako kide sentitzeko pertenezki eta konpromiso-sena behar da. Asanbladak aukera ematen du talde/ikasgela hobeago bat egiteko, pertsona hobeago bat izateko.

Asanbladaren **EDUKIA** egunerokotasunari buruzko gai-multzo bat da, ikasgela batek heltzea proposatzen duena eta gai-zerrenda antolatzeke ardatza izango dena. Hauek dira normalean agertzen diren gaiak: bizikidetzaren eta pertsonen arteko harremanen inguruko gaiak, lan akademikoa, jardueren eta proiektuen antolamendua, eta hainbat informazio.

Asanbladaren **ANTOLAMENDUA** egokia izateko beharrezkoa da partaidetza, eta funtsezkoak dira bertan hausnarketa, elkar aditzea eta guztien ekintza konprometitua. Asanbladaren funtzionamenduan beharrezkoak dira errutinak eta elementu lagungarriak (kartelak, eguneko zerrenda, akordioak eta konpromisoen libreta...), partaidetza bultzatuko dutenak. Planifikatutako gune bat izan behar du, kideek alde aurretik erakutsi dezaten parte hartzeko gogoak, gaiak prestatuz eta konpromisoak hartuz. Tutorearen eta ikasleen arteko rola aldatu egin behar dira eta protagonismo handiagoa eman behar zaie haurrei, eta harreman horizontalago bat bermatu. Tutoreak lagundu egingo die prozedurak eskainiz eta balio inplizituak nabarmenduz. Asanblada bat garatzeko orduan, kontuan hartu behar dira **funtsezko hiru alderdi** hauek:

- Prestaketa. Taldea maila indibidualean nahiz kolektiboan parte hartzeko prestatzea dakar berekin. Astea nola garatu den eta zein gairi helduko dioten aztertzea eskatzen du. Asanbladara iritsiko ez diren gaiak egotea ere espero da, taldekideek era autonomo batean konpondu ahal izango dituztenak.
- Eztabaida. Ikasleek gaiak azaltzea, haiei buruz dituzten ikuspegiak adieraztea, kideen iritziekin alderatzea, eta planteatutako egoerak konpontzen eta, behar izanez gero, akordioetara iristen ahalegintzea eskatzen du.
- Aplikazioa. Planifikatutako ekintzak garatzea eta taldeak hartutako akordioak jarraipena egitea eskatzen du. Hitzetik adostutako ekintzetara igarotzeko unea da.

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

Proiektuen lana talde/ikasgelaren barruan

DESKRIBAPENA: Taldea proiektu zehatz baten inguruan biltzeak aukera ematen du lidergorako eta ekintza planifikatzeko, erronka kolektibo bat lortze aldera. Proiektuek, zehaztu, antolatu eta garatu beharreko ekintza baten itxaropenak proiektatzea eskatzen dute. Proiektuaren balioa erronka kolektibo hori lortzeko kideek garatzen duten prozesuan datza, erronka horren emaitzan baino. Prozesu horrek elkar lotutako ekintza-multzo bat eskatzen du, imajinatu, zehaztu eta egituratu beharrekoa. Hauek dira taldeak proiektu baten garapenaren bete beharreko eginkizunak:

- Errealitate bat ezagutu eta ulertzea, hobekuntza edo aurrerapenen bat egiteko borondatearekin.
- Taldea ekimen baten inguruan elkartzea eta elkar aditzea bultzatzea, aukera izan dezaten bakoitzaren ahalmenetatik sortutako harreman bat izateko.
- Batera adostutako ekintzen lidergoa hartzea. Hasiera-hasieratik bultzatzen da haurren protagonismoa. Autokudeaketa eta ekintza desberdinen lidergoa sustatuz.
- Talde gisa nola lan egiten duten ebaluatzea. Prozesuan lankidetzan aritzeak bide eman behar du ekintzatik abiatutako hausnarketa bat egiteko, baita ekintza hori nola egokitu behar den pentsatzeko ere.

Proiektuaren **EDUKIA** tutoreak, haurrek edo elkarrekin batera proposatu ahal izango duten erronkaren inguruan dago oinarrituta. Baina gai nagusitik harago, gaitasunei lotutako eduki desberdinak sortuko dira ekintzak garatu ahala (adibidez: galderak egitea, informazioa aztertzen jakitea, taldean antolatzea, talde lana...)

Proiektu baten garapenaren **ANTOLAMENDUAK** taldearen ezaugarriak, interesak eta motibazioak hartu behar ditu kontuan. Erreferentziazko tutoreak botako du taldeak zehaztutako erronka eta elkarren artean antolatzen utziko die haiei. Horretarako, garrantzizkoa da behar duten

denbora eta espazioa izatea elkarren artean antolatzeko eta zereginak talde txikitan edo handitan garatzeko. Tutoreak galdera lagungarriak egingo dizkie, taldearen barruan eztabaida sorrarazteko. Edozein proiektutan igaro behar da fase hauetatik:

- Proiektua definitzea. Taldekide guztiek proiektuaren inguruko informazio bera izan behar dute eta esanahi bera ematen diote. Abiapuntu bat bermatu behar da, bateratua eta argitua. Parte-hartzaileek galdera hauei erantzun behar diete: Zer lortu nahi dugu proiektuarekin? Zergatik egiten dugu?
- Proiektua planifikatzea. Erronka lortzeko taldeak aurrera eraman beharreko ekintzak adieraztea eskatzen du. Ekintzen sekuentzia eta haietako bakoitzean bete behar diren zereginak identifikatzea. Garrantzi handikoa da ekintza bakoitzerako bi taldekide izendatzea bere garapenaz arduratu daitezen, baita ekintza burutzeko behar den denbora adostea ere. Parte-hartzaileek galdera hauei erantzun behar diete: Nola egingo dugu? Zer behar dugu egiteko? Nor arduratzen da?
- Ekintzak garatzea. Planifikatu eta adostutako ekintzak egituratzea eskatzen du prozesuan aurrera egiteko. Garrantzizkoa da taldekide guztiak ekintza batean edo gehiagotan inplikaturik egotea. Plangintza berrikusteko guneak aurreikusi behar dira, ekintzak helburuetara egokitzen ari diren modua ikusita moldatu ahal izateko. Hausnarketa funtsezkoa da ekintzan. Parte-hartzaileek galdera hauei erantzun behar diete: Nola doa proiektua? Lortzen ari da bere helburuak? Zein ekintza doituz edo egokitu behar dira?
- Proiektua amaitzea. Prozesu osoa aztertzea eta taldearen erronka zein mailataraino lortu den ikustea eskatzen du. Proiektuan izan den partaidetzan eta taldean izan duen eraginean pentsatzeak euren burua eraldaketaren eragile gisa ikusteko aukera ematen du. Baita proiektuan lagungarri izan diren gaitasunak indartzea eta oztopo izan diren alderdien inguruan hobekuntzak gehitzea ere.

Zein da eskaria? Proposamenari esanahi bat ematea

Zer egin nahi dugu? Proiektua gure egitea

Nola egingo dugu? Nola antolatuko gara? Metodologia erabakitzea

Norekin egingo dugu? Beste informatzaile batzuk barneratzea, batez ere espazio hori bera erabiltzen duten edo erabil dezaketen haurrak

Zer behar dugu? Baliabideak eta materialak zehaztea

Zenbat denbora dugu? Prozesua definitzea

Nola jakingo dugu zer egin? Ebaluaziorako elementuak identifikatzea

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

3. INSTITUZIOA

Instituzioek formalizatuta eta sistematizatuta dituzten partaidetzazko praktika guztiak beren antolamenduan eta dagozkien dokumentu ofizialetan.

Ikastetxearen antolamendua eta kudeaketa

Hemen deskribatuko ditugu eskola-bizitzaren kudeaketan eta antolamenduan dauden estrategia guztiak eta, beraz, gainkarga bat adierazten ez dutenak, estrategia horietan oinarritzen baita ikastetxearen funtzionamendua.

Hiru estrategia (edo praktika) azalduko ditugu:

- 1. Eskolaren antolamendu bertikala taldeka (koloreak, animaliak eta abar).
- 2. Ikastetxearen funtzionamenduko batzordeak.
- 3. Ikasgelako ordezkariak: Ordezkaritza erreala eta Bilera.

1. Eskolaren antolamendu bertikala taldeka (koloreak, animaliak eta abar).

DESKRIBAPENA: Ikastetxeko ikasle guztiak, beren eskolatzea hasi eta amaitu artean, multzo bertikal bateko kide dira, eta multzo horrek hiru talde handitan egituratzen ditu. Ikasleak ausaz sartzen dira talde bakoitzean, ikastetxean lehenbiziko aldiz hasten direnean. Beraz, ikasgela batean hiru taldeetako kideak aurkitzen ditugu. Taldeek puntuazioak metatzen dituzte merezimendu batzuetatik abiatuta: taldea osatzen duten guztien emaitza akademikoak, jokabide egokia, ikastetxeko kirol edo kultur jardueretan dituzten emaitzak, batzordeen funtzionamendua eta abar.

Goragoko mailetakoko kideek babestu egiten dituzte txikiak (5. mailako ikasleak L3koak eta 6. mailakoak L4koak)

Talde bakoitzak ordezkari bat du ikasgela bakoitzeko eta kolore bat duen ordezkari orokor bat. Ordezkariek bilerak egiten dituzte aldizka taldeen funtzionamendua berrikus-teko, zer eta zertan hobetu dezaketen ikusteko, eta zertan zoriontzeko.

Estrategia horrek aukera ematen die lehia osasungarri batean parte hartzeko, lehiakortasun indibidualista saihestuz. Ez dago “ni” bat, “gu” bat baizik.

HELBURUA: Pertenentzi sena sustatzea eta bakoitzak egindako edozein ahalegin taldearen onurarako dela jabetzen joan daitezen lortzea. Taldearen funtzionamendu egokia ona da norbanakoarentzat eta alderantziz. Erantzukizun partekatua, lankidetza, lan eta ikaskuntza kooperatiboa eta premiei erantzuteko elkarlana lantzen dira (elkarmendekotasun positiboa). Taldean bizitzen dituzte garaipenak eta hutsegiteak.

	TALDEA	TALDEA	TALDEA
Haur Hezkuntza			
Lehen H. 1. zikloa			
Lehen H. 2. zikloa			
Bigarren Hezkuntza			
Batzilergoa			

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

2. Ikastetxearen funtzionamenduko batzordeak.

DESKRIBAPENA: Batzorde bakoitzak garatzen dituen zereginak eragina dute ikastetxearen funtzionamenduan, eta gainkarga kentzen diete irakasleei edo hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuei. Batzordeak dinamizazio eta partaidetzarako organoak dira, eta curriculumaren eremuei edota ikastetxearen premiei erantzuten dieten gaiei lotutako jarduera desberdinak antolatzeaz eta burutzeaz arduratzen dira. Batzorde horiek anitzak eta ugariak izan daitezke, nahi adina edo premien arabera, baina hasteko nahikoa da bat edo bi egotearekin, eta hasieratik izan behar dute benetako parte Ikastetxearen Antolamendu Egitura Orokorrean. Xedea litzateke talde bat eratzea hezkuntza-komunitate osoaren premia edo interes komun batetik abiatuta, eta aho batez adostuak eta planifikatuak izan behar dute hezkuntza-eragileen, zerbitzu-langileen eta ikasleen aldetik. Batzordeen zereginak eskolatze-aldi osoan zehar burutzen dira, eta egunero martxan jarri ohi dira. Batzorde bakoitzak arduradun bat edo ordezkari bat du, eta bera arduratzen da batzordearen funtzionamendua egokia izateaz eta ikasturtearen amaieran ebaluazio bat egiteaz.

NORTZUK DIRA BATZORDEETAKO KIDEAK?
Batzordeak haurrek ez ezik helduek ere osatutakoak dira (irakasleriako kideak eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuk, administrazioko eta zerbitzuetako langileak, adibidez), eta elkarrekin aritzen dira lanean helburu bera lortze aldera.

HELBURUA: Hezkuntza-komunitatearen premiei erantzutea eta aldi berean ikasle guztiek modu batean edo bestean parte har dezaten lortzea, horrela saihesten baita gogo gehiena dutenak bakarrik izatea partaidetza-kanal horien onuradunak. Ikastetxearen funtzionamendu-eremuetako baten arduradun izateko eta autonomia garatzeko aukera ematen du. Gainera, dibertsitatean arreta jartzeko modu bat da, haur bakoitzak berezkoak dituen gaitasun desberdinak indartzen baititu eta ez du inor baztertzen.

Ondoren, adibide gisa erakutsiko ditugu bederatzi batzorde, aztertu ditugun eskola parte-hartzaileetako batzuetakoak.

IDAZKARITZA - EKONOMIA Ikastetxearen administrazioan laguntzen dute eskatzen zaizkien zereginetan, bertako administrazioarekin eta ekonomiarekin zerikusia duten horietan.	PROTOKOLOA Ikastetxearen historia ezagutzeaz eta irakasleriako eta ikasleriako kide berriei harrera egiteaz arduratzen dira, baita ikastetxera iristen diren beste bisitari batzuei harrera egiteaz ere.	JANTOKIA ETA SUKALDEA Jantokia prestatzeaz eta sukaldeak behar den guztia duela ziurtatzeaz arduratzen dira. Gainera, eskaerak kudeatu eta harrera egiten diete hornitzaileei.
METEREOLOGIA Eguraldia, tenperatura eta beste ezaugarri batzuk egunero iragartzeaz arduratzen dira.	IRRATIA / ALDIZKARIA Albisteak jasotzen dituzte eta ikasgela bakoitza antolatzen da ikastetxeko irratiko edo aldizkariko programaren hiruhileko edizioa prestatzeko.	LIBURUTEGIA Liburutegiko espazioa kudeatzen dute, irakurketak proposatzen dituzte, baliabideak antolatu eta banatzen dituzte.
GARBIKETA Ikastetxea, ikasgelak, korridoreak, patioa eta komunak garbi edukitzeaz arduratzen dira, baita gai horri lotuta sor daitezkeen gatazkak kudeatzeaz ere.	DENEN ESPAZIOAK Espazio desberdinen banaketa eta ematen zaien erabilera kudeatzeaz arduratzen dira, gune ekitatiboak izan daitezen, eta espazio horiek apaintzeaz ere arduratzen dira.	IRAKASLEAREN LAGUNTZAILEAK Irakasle guztiei eskatzen dizkieten zereginetan laguntzeaz arduratzen dira; materialak prestatzea, espazioak kudeatzea eta abar.

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

Horiez gain, ikastetxeek beren funtzionamenduaren eta kudeaketaren premietatik zuzenean sortzen diren beste batzuk ere proposatu ditzakete. Ugariak dira aukerak, badira ikastetxe batzuek hauek bezalako batzordeak dituztenak: lorazainenak, kultura eta festetakoak, solidaritate eta bizikidetzakoak, natura zaintzekoak, lehen laguntzakoak, zuzendaritza-taldeari laguntzekoak eta abar. Batzordeek ikastetxearen funtzionamenduan nola lagundu dezaketen hausnartzea da xedea eta konfiantza izatea

haurrek benetan konpondu ditzaketela beste hezkuntza-eragileentzako gainkarga adierazten duten arazoak, gaitasun sozialak eta herritartasunari lotutakoak garatzen ari diren bitartean curriculumean.

Askotan gutxien ditugu haurren gaitasunak balio handiko ekarpenak egiteko, historian zehar helduei lotu izandako gaietan ere. Hala ere, ikastetxearen funtzionamendua hobetzen laguntzeko gaitasuna dute!

3. Ikasgelako ordezkariak: Ordezkaritza eta Bilera

Egia bada ere ikastetxe guztietan –parte-hartzaileak izan edo ez– ordezkariak daudela, ikastetxe parte-hartzaileetan askoz ere zentzu handiagoa ematen diote ordezkari bat hautatzeari, partaidetza-kanal hori garrantzitsuentzat jotzen baitute irakasleek, batez ere ordezkariak hautatzeak eta biltzeak dakarren prozesuagatik.

HAUTAKETA-PROZESUA: Hautaketa-prozesu osatu bat martxan jartzea, non hautagai izateko aurkeztu nahi duten ikasleek beren programa, interesak, helburuak eta abar defendatuko dituzten. Kanpaina egiten dute talde/ikasgelan emandako “mitinen” bitartez, posterrak, esloganak eta baita panfletoak ere lantzen dituzte beren kideen artean banatzeko hauteskundearen eguna iritsi arte. Egun horretan hauteskontziak erabiltzen dira botoa uzteko, benetako hauteskundeetan bezala.

Pertsona bakar bat izan daiteke hautagai, edo bi edo hiru pertsona taldean, non ordezkari bat, ordezkariorde bat edo idazkari edo laguntzaile bat egongo diren (edo egokitutako jotzen dituzten karguak). Horrela, partekatua/arina izan daiteke lidergoa.

Zentsura-mozioa dago ordezkari bat bere kargua ondo eramaten ari ez bada. Kexa formal bat aurkeztu daiteke, egindako kritika arrazoituz, horrela, denek batera irmotu edo baztertzeko ordezkari hautatu duten pertsonarengan jarritako konfiantza, eta bozketa berri bati ekiteko. Gainera, oso parte-hartzaileak diren ikastetxe batzuetan, Ikastetxearen Barne Araudian biltzen da agintaldiaren epea, ikasle guztien artean asanbladan adostua, eta gainera, ikasleek eskatuta, ordezkari gisa “agintaldia” luzatzeko modua nola arautu daitekeen azaldu dezakete.

EGINKIZUNAK: Hautatuak izan ondoren, bildu egin behar dituzte ikasgelan asteen behin egiten diren asanbladetan proposatutako ideia, ohar, iradokizun, kexa eta

proposamen guztiak, eta ordezkarien bilerara eramango dituzte, funtsezkotzat hartzen den partaidetza-kanalera, hain zuzen ere.

HELBURUA: Talde bat ordezkatzeko eginkizun serioa dela ulertzea. Era berean, ordezkari-taldea batek eta hauteskunde-prozesuek nola funtzionatzen duten ikasten dute, baita “boterearekiko” desadostasuna adierazten ere, edo kasu honetan haien ordezkariarekiko, zerbait bidegabea dela iruditzen bazaie.

ORDEZKARIEN BILERA: Bi hilabetearen behin egiten da eta ikastetxeko ordezkari guztiak bertaratzeko, baita ikastetxeko zuzendaritza-taldea ere, informazioak helarazteko. Bilera horietan guztiak dute hitzarekin eta botoarekin parte hartzeko eskubidea, eta elkar aditzeko eta errespetuzko jarrera erakusten dute guztiak. Haurrek erabakiak hartzen parte hartzen dute. Hartzen diren erabakiak eta lortzen diren akordioak guztiak burutu eta errespetatzen dituzte. Aurretik, ordezkari bakoitzak bere talde/ikasgelarekin prestatzen du bilera eta batera hartzen dituzte jarrerak bileran helduko zaien gaien aurrean. Bilera amaitzean, ordezkari bakoitzak bere talde/ikasgelarekin partekatuko du bileraren edukia, eta guztiak adostuko dute nola garatu bertan hartu diren akordioak.



Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

Ikastetxearen heziketa-proiektua

Haurren eskubideak curriculumean integratzeko koadernoan UNIFECek adierazitakoaren arabera, IHPren identitate-ikurrak atalean jaso daitezke haurren eskubideekiko konpromisoari lotutako printzipioak. Hala, konpromiso hori haurren partaidetzarekin nola har daitekeen proposatzen dugu hemen.

Ikastetxe parte-hartzaile baten heziketa-proiektuak argi eta garbi aipatzen du haurrek parte hartzeko duten eskubidea. Proiektuan ezarri egin behar da ikastetxe parte-hartzaile bat sortzeko helburua, ikasleak prestatuko dituen bitartean instituzionalean, sozialean eta kulturean inplikatu daitezen, herritar aktibo diren aldetik, dagozkien erantzukizunetatik, elkarriketa konstruktibotik eta elkarlanetik.

Ikastetxe parte-hartzaile batek ezaugarritzat dituen heziketa-proiektuaren helburuetako batzuk hauek dira:

- Parte-hartzeko esperientziak eskaintzen ditu, elkarriketarako, tolerantziarako, erabakiak hartzeko gaitasunak eta beharrezko trebetasun sozialak

erabiltzeko, baita eskola-bizitzan inplikatzeko ere.

- Klaustroaren eta familien artean ezagutza bultzatzea eskola-bizitzan eragina duten alderdietan.
- Sektore desberdinen arteko elkarriketarako eta elkarlanerako guneak definitzea eta funtzionatzen dutela zaintzea, dagozkien erantzukizunetatik.
- Erantzukizuna eta autonomia indartzea zereginak eta karguak betetzean, era horretan hezkuntza-komunitateko kide guztiek kolektibitatearen eta bere jardun egokiaren parte direla ikus dezaten.

Ikastetxearen heziketa-proiektuak proiektu espezifikoak zehaztu ditzake, baita Ikastetxean Jarduteko Proiektuak ere, haurrek eskolan parte hartzea ardaztat hartuta. Oinarrizko gaitasunen eta dagozkien metodologiaren egitura ikastetxe parte-hartzailearen eredu batekin barneratzea da helburua. Hala, eredu hori ikastetxeek beroiek definitutakoa izango da:

“Eskola parte-hartzaile eta inklusibo baten eredua, non ikasle guztiek aurkituko duten beren lekua eta parte hartzeko beren modua, erantzukizunetik eta elkarlanetik, elkar bizitzeko leku bat izan dadin Eskola, jardun demokratikoa eguneroko errealitate bilakatzeko (ADIBIDEA. Ikastetxe parte-hartzaile baten IHPko hitzez hitzeko aipamena)”.



Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

Proiektu espezifikoak edo jardutekoak

Horrelako proiektu bat ikasturte osoan zehar garatzen da, hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko, eta jarraitasuna du. Jarduera batzuk garatzean datza. Hala, jarduera horiek lagungarriak dira balioak eta oinarritzko gaitasunak praktikara eramateko, eta aldi berean tresna bat dira hezkuntza-komunitatearen egitura funtzionala zehazteko. Ikastetxearen heziketa-proiektuaren konfiguraziotik abiatuta partaidetzara egindako hurbilketa horrek adibide gisa balio du erakusteko ikasbide bat, ikastetxearen filosofia bat balitz bezala ulertu behar dela partaidetza, eta ez bakarrik gehitzen zaion metodologia bat bezala (ikus beheko koadroa).

Ikastetxea eskala txikian eratutako gizarte txiki bat izatea da asmoa, non ordena dagoen, baina mundu

guztia parte sentitzen den eta, beraz, erantzule ere. Ondoren taula bat agertzen da eta proiektuan garatuko diren jarduera espezifikoen multzo osatu bat jasotzen da bertan. Hala, jarduera horietatik esanguratsuenak deskribatuko ditugu proposamenean zehar.

Kontuan hartu behar da jarduerak beti daudela lotuta curriculumeko oinarritzko konpetentziekin. Jarduerak ondoko konpetentziekin daude lotuta: komunikaziorako konpetentziak (linguistikoa eta ikus-entzunezkoa edo artistikoa eta kulturala); konpetentzia metodologikoak (informazioaren tratamendua eta konpetentzia digitala; matematikarako konpetentzia eta ikasten ikastea); konpetentzia pertsonalak (autonomia eta ekimen pertsonala) eta baita espezifikoeekin ere, bizikidetzan oinarritutakoekin (ingurunearen ezagutza eta interakzioa, konpetentzia soziala eta herritartasun-konpetentzia).

JARDUERA	ZIKLOA	TENPORALIZAZIOA
BATZORDEAK	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	Ikasturte osoa / Berrikuspena astero
IKASGELAKO ASANBLADAK	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	Astean behin
ZIKLOKO ASANBLADA	Lehen Hezkuntzako ziklo guztiak	Hiru hilean behin
IKASTETXEAREN ANTOLAMENDU BERTIKALA TALDEKA	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	Eskolatze osoan zehar
ORDEZKARIEN BILERA	Haur eta Lehen Hezkuntzako azken urtea	Bi hilean behin
BABESLETZA	Lehen Hezkuntzako 3. maila 5. mailarekin eta Lehen Hezkuntzako 4. maila 6. mailarekin	Bi kurtso
PROIEKTUAK KOMUNITATEAREKIN	Ikastetxe osoa	Hiruhileko bat
EKITALDI KULTURALAK	Ikastetxe osoa	Ikasturtean zehar
BILERAK ETA ELKARRIZKETAK FAMILIEKIN	Ikastetxe osoa	Ikasturtean zehar
ROL ALDAKETA	Lehen Hezkuntza	Puntuala (ikasturteko egun bat)

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

4. INGURUNEA

Eskolatik harago parte hartzeko ekintzak komunitatearekin eta tokiko administrazioarekin ezartzen diren harremanen bitartez.

Inplikazioa udalerriko Haur Kontseiluarekin

Gaur egun, UNICEFen Haurren Lagun diren Hiriak programa dugu, asmoz duena haurren eta nerabeen bizi-baldintzak hobetzea euren garapen integrala bermatzen duten udal politikak eskubideen ikuspegi batekin ezarriz, eta programa horri esker hainbat ekimen daude herritarrek hiri-proiektu baten eraikuntzan inplikatzeko.

Ekimen horien artean nabarmentzekoa da **haurrek edota nerabeek parte hartzeko udal kontseiluen (CLIA)**³ sorkuntza; tokiko gobernuek hedatutako praktika bat da, haurrak eta nerabeak, oraingo herritar diren aldetik, udal politiketan inplikatzeko.

Gaur egun, 170 udalerritan daude partaidetza-egitura legitimatua eta aintzatetsia dutenak, Haurren Lagun diren Hiriak programak proposatzen duen kudeaketa-ereduan oinarrituta. Egitura horiek iraunkorrak eta irrimoak dira, bertan kide diren haurrak bozeramaileak dira eta udalerriko gainerako haurrak ordezkatzeko dituzte. Kontseilua erantzunkidetasunean oinarrituta aritzen da elkarlanean tokiko gobernu-taldearekin, eta bere hirian kezka sorrazten duten gaietan gainerako haurrak inplikatzeko da bere helburua. Haurren Kontseilua herritarren partaidetzarako organo bat da –parte da herritarren partaidetzari buruzko araudietan aintzatetsitako Kontseilu Sektorialean–, eta bertan 6 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeek bilerak egiten dituzte beren bizitzetan eragina duten hiriko gaiei buruz eztabaidatzeko, iritzia emateko, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko.

CLIA baten eginkizunak, Haurren Lagun diren Hiriak programaren arabera, hauek dira:

- Tokiko agintarien aurrean haurren kolektiboaren solaskide izatea, haurrek dituzten premiak, proposamenak eta interesak haiei helarazteko.
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena udalerrian bete dadin zaintzea.
- Haurren Planen diseinuan eta jarraipenean parte hartzea.
- Haurren eta nerabeen ongizatearen eta kalteberatasun egoerak “indargabetu/gutxitzearen” alde lan egiten duten beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzea.

CLIAk udalerriko haurrek osatzen dituzte, haien talde/ikasgelako kideek demokratikoki hautatu izan dituztenek. Hautespen-prozesuan bermatu egin behar dira aukera-berdintasunak, haur orok, parte izatea erabaki duenak, kide izateko aukera izan dezaten. Organo horretan parekidetasuna eta bere osaeran ordezkaturik dauden adinen oreka sustatu eta bete behar dira. Normalean hautagaiak eta botoak aurkeztuz egiten da, baina beste hautespen-prozesu batzuk ere aukeratu daitezke.

CLIA bakoitzak bere araudia landu behar du. Erreferentzia-esparru bat da hori, eta bertan kontseiluak definitzen dituzten zer den, zer eginkizun dituen, nola eratu eta berritzen den, zer gai lantzen dituen eta nola garatzen dituen, bere erreferentzia-taldea nola inplikatzeko duen, eta nola ziurtatzen duen udal-gobernuak haien ekarpenak kontuan hartzen dituela. Araudi hori barne-dokumentu bat da, eta berrikusi eta eguneratu egin behar da CLIA berritzen den bakoitzean.

Haurren eta Nerabeen Kontseiluak proposatuta, kontseilua honela egituratu behar da: Lehendakaritza, hau da, alkatea; bozeramaileak, hau da, demokratikoki hautatutako haurrak, udalerriko indar politikoetako

3. UNICEF (2014). Haurren eta nerabeen kontseiluak toki-eremuan eta genero ikuspegiarekin eratzeko oinarritzko gida. Haurren Lagun diren Hirien Programa. UNICEF Espainia.

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko

ordezkariak eta irabazi asmorik gabeko erakundeetakoak, haurren eskubideen alde lan egiten dutenak; eta kontseiluko idazkaritza, hurrekin eta nerabeekin lotutako teknikaria litzatekeena. CLIAk osoko bilkuretan eta batzordeetan antolatu daitezke.

CLIAren lan-bilerak, lantzea erabakitzen duten gaiak heltzeko eta garatzeko guneak dira. Garrantzizkoa da kontseilua izatea ekimenen eta proiektuen buru. Horretarako, laguntzen dieten helduek ziurtatu egin behar dute haurrak direla protagonistak, partaidetza-metodologia baten bitartez⁴. Hala, metodologia horretako estrategiek eta dinamikek ahalbidetu egin behar diete beren eginkizunak garatzea eta beren herritartasun-konpetentziak areagotzea.

Ikastetxeek aukera bat dute Kontseiluetan beren ikasleen partaidetzarako konpetentziak bultzatzeko. Horretarako, bide eman behar diete bozeramaileei dagokien ordezkartza-funtzioa beren kideekin batera garatzeko, horrela ahalbidetzen baitira udalerriko haurren eta nerabeen partaidetza-aukerak.

Ikastetxe parte-hartzaileak erraztu egiten ditu haurren eta nerabeen partaidetza-organoak eratzeko prozesuaren informazioa, elkarrekintza eta inplikazioa.

PROZESUA: Funtsezkoa da hezkuntza-komunitateak ezagutzea, elkarrekintzan aritzea eta esku hartu ahal izatea haurren eta nerabeen partaidetza-kontseilua eratzeke Tokiko Gobernuak sustatutako ekimenean. Horretarako, hezkuntza-komunitateak trukatuko barne-espazioak eduki behar ditu ikastetxean eta Tokiko Gobernuarekin prozesu horretan elkartzeko. Funtsezkoa da saio espezifikoak egitea ikasleentzat, familientzat eta klaustroarentzat. Saio horiek partaidetzari buruzko edukiak bildu behar dituzte, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean aintzatesten den eskubide bat den aldetik; haurren eta nerabeen kontseilua eratzeke prozesuaz informatu behar dute, eta hasieratik baloratu behar dute haurrek prozesu horretan parte hartu ahal izateko interesa eta ikastetxeak beteko duen rola partaidetza hori sustatzeko. Udal-eremuan alde aurretik esperientziak

izanez gero, oso egokia litzateke haurrek zuzenean kontatzea beren esperientzia.

Haurren partaidetzari buruzko prestakuntza-zikloa amaitzerakoan, haurrek aukeratuko dituzte euren ordezkariak, hauteskunde demokratikoetan oinarrituta⁵. Udalerrriaren eta prozesuan sartzen diren beste ikastetxe batzuen tamainaren arabera, haurren kopurua hartu beharko da kontuan. Betiere, ordezkariak hautatzerakoan funtsezkoa da kontuan hartzea partaidetza boluntarioa dela eta ekitate-irizpideei erantzun behar diela. Partaidetza-organoa eratutakoan, prozesu horretarako gomendatzen da haurrek esku hartu ahal izatea euren den prozesu horren diseinuan (araudia, bileren maiztasuna, edukiak eta abar). Ikastetxearen esparruan, ordezkartza benetakoa izateko, gomendatzen da udalerriko haurren partaidetza-kontseiluko ordezkariak informazioa trukatzeko eta gaiak eztabaidatzeko guneak eskuragarri izatea, gai horiek kontseiluan aztertuko baitituzte ikastetxeko euren kideekin.

Ikaskuntza eta Zerbitzua

Ikaskuntza eta zerbitzuko proiektu ezagunak (APS) baliabide bikaina izan daitezke ikastetxearen curriculum-programaren barruan; izan ere, horrela definitzen ditu UNICEFek *Haurren eskubideak curriculumean integratzeko gidan*.

Proiektu horiek jarduera konplexu bat bezala definitzen dira, eta bertan komunitatearekiko zerbitzua sartzen da curriculumeko edukien, konpetentzien, trebetasunen eta balioen ikaskuntzarekin batera. APSren Sustapen Zentroaren⁶ arabera, proiektuek asmo pedagogikoak eta asmo solidarioak biltzen dituzte. Hezkuntza-proposamen horrek ikaskuntza-prozesuak eta komunitatearekiko zerbitzuari lotutakoak elkartzen ditu, eta ikastetxearen inguruneke premia errealean gainean lan egiten du, besteren artean, denontzat diren espazioak diseinatzea edota konpontzea (lorategiak, elkarguneak) eta ekintzailatza desberdinetako azokak antolatzea.

4. Los Glays elkarte (2014). *Entendiendo la participación infantil. Ideas, estrategias y dinámicas para trabajar la participación infantil paso a paso*. Programa de Ciudades Amigas de la Infancia. UNICEF, Espainia

5. Zenbait kasutan haurrek zuzenean eman dezakete izena Partaidetza Kontseiluan, ikastetxearen barruan hauteskunde bat egin beharrik izan gabe. Kasu horietan, ikastetxeek jakin egin behar lukete haurrak parte hartzen ari direla beren udalerriko kontseiluetan.

6. <http://www.aprenentatgeservei.cat/index.php?cm=03>

Ideiak eta estrategiak eskola parte-hartzaile bat izateko



HELBURUAK: bizitzarako ezagutzak eta konpetentziak eskuratzea; pedagogia aktiboa eta hausnarketan oinarritua aplikatzea; ikastetxearen inguruneke erakundeekin lotura-eta babes-sare bat ezartzea.

APSren Sustapen Zentroko esperientzia-bankuan aurki dezakegun adibide bat proiektu hau da: ¡Arráigate al barrio! Huerto Urbano Comunitario⁷.

Zerbitzuaren deskribapena: Komunitatearen leku bat berreskuratzea landare aromatikoak eta loreak hazteko eta espazio publikoetako eta auzotarren komunitateetako jardinerak hornitzeko. Ate irekien egunak ospatzea eta auzoko ekologia sustatzea.

Ikaskuntzak: Hiriko laborantzaren eta baratzaren mantentze-lana eta talde parte-hartzaile baten antolamendu eta kudeaketarako sistemak.

Parte-hartzaileen adinak: 10-12 urte, 12-14 urte, 25-65 urte, 65 urte baino gehiago.

Batera parte hartzen dute: ikastetxeek, desgaitasunak dituzten pertsonentzako egoitzak, egoneko zentroak, petanka-elkarteak, hiriko natura-eskolak.

Proiektu Solidarioak

Ikastetxeak kanpoko proiektu solidarioetan parte har dezake. Proiektu horiek ikasleen ekimenez sortuak izango dira, beren hiriari atxikitzeko eta inguratzen duten errealitate soziala ezagutzeko helburuz. Ez dute zertan bete APS proiektu baten baldintzak, kasu horretan solidaritatea baita xede bakarra.

Proiektu solidarioetan, besteren artean, ondokoekin aritu gaitzake lankidetzan: Inguruko Haurren Ospitaleak, Hirugarren Adinekoen Egoitza, Elikagaien Bankua edo janaria biltzeko udalek antolatutako beste batzuk

7. <http://www.aprenentatgeservei.cat/index.php?cm=06&idC=1229>

Erreferentziak

Agud, I. (2014). *Participació infantil i educació. Escola, lleure i consells d'infants* (doktorego tesia). Bartzelona: Universitat de Barcelona.

Agud-Morell, I., Ciraso-Calí, A., Pineda-Herrero, P., & Soler-Masó, P. (2017). Percepción de los jóvenes sobre los espacios y momentos en su proceso de empoderamiento. Una aproximación cuantitativa. *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria. Journal of Research in Social Pedagogy*, 30, 51-66.

Los Glayus elkartea (2014). *Entendiendo la participación infantil. Ideas, estrategias y dinámicas para trabajar la participación infantil paso a paso*. Programa de Ciudades Amigas de la Infancia. Madril: UNICEF.

Casas, F., & Bello, A. (2012). *Calidad de Vida y Bienestar Infantil Subjetivo en España*. Madril: UNICEF.

Chawla, L. (2001). Evaluating children's participation: seeking areas of consensus. *PLA Notes*, 42, 9-13.

Coiduras, J. L., Balsells, M. À., Alsinet, C., Urrea, A., Guadix, I., Belmonte, O. (2016). La participación del alumnado en la vida del centro: una aproximación desde la comunidad educativa. *Revista Complutense de Educación*, 27(2), 437-456. https://doi.org/http://dx.doi.org/10.5209/rev_RCED.2016.v27.n2.46353

Hart, R. (1992). *Children's participation: From Tokenism to citizenship*. Florentzia: UNICEF: Innocenti Essays.

Kirby, P., Lanyon, C., Cronin, K., & Sinclair, R. (2003). *Building a Culture of Participation. Involving children and young people in policy, service planning, delivery and evaluation. Handbook*. London: National Children's Bureau-PK Research Consultancy.

Lansdown, G. (2001). *Promoting children's participation in democratic decision-making*. Florentzia: UNICEF.

Liwski, N. (2006). 2006ko irailaren 15ean emandako diskurtsoa, haurrek adituak izateko duten eskubidearen aldeko Eztabaida Nagusiaren Egunaren esparruan; Nazio Batuen Haurren Eskubideen aldeko Batzordeak antolatua, Geneva.

Matthews, H. (2003). Children and Regeneration: Setting an Agenda for Community Participation and Integration. *Children and Society*, 17(4), 264-276.

Novella, A. (2008). Formas de participación infantil: la concreción de un derecho. *Educación Social*, 38, 77-93.

Novella, A., & Trilla, A. (2014). La Participación Infantil. In J. Trilla, A. Novella, A. Llena, E. Noguera, M. Gomez, T. Morata, et al., *Participación Infantil y Construcción de la Ciudadanía*. Bartzelona: Graó.

Percy-Smith, B. (2006). From consultation to social learning in community participation with young people. *Children Youth and Environments*, 16(2), 153-179.

Soler, P., Trilla, J., Jiménez-Morales, M., & Úcar, X. (2017). La construcción de un modelo pedagógico del empoderamiento juvenil: espacios, momentos y procesos. The construction of a pedagogical model of youth empowerment: spaces, moments and processes. *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria. Journal of Research in Social Pedagogy*, 30, 19-34.

Susinos, T., y Ceballos, N. (2012). Voz del alumnado y presencia participativa en la vida escolar. Apuntes para una cartografía de la voz del alumnado en la mejora educativa. *Revista de Educación*, 359 (iraila-abendua), 24-44. <https://doi.org/10.4438/1988-592X-RE-2012-359-194>

Thomas, N. (2007). Towards a Theory of Children's Participation. *International Journal of Children's Rights*, 15, 199-218.

UNICEF. (2003). *The State of the World's Children 2003 - Child participation*. Retrieved 04 20, 2013, from Unicef.org: <http://www.unicef.org/spanish/sowc/>

UNICEF (2014). *Guía básica para la creación de consejos de infancia y adolescencia en el ámbito local con enfoque de género*. Programa de Ciudades Amigas de la Infancia. Madril: UNICEF.

Urrea, A. (2017) CREC. Crece, responsabilízate y creA. Programa para la promoción de los Derechos de la Infancia. Madril: UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA.

Wright, P., Turner, C., Clay, D., & Mills, H. (2011). The participation of children and young people. Participation Practical Guide 06. UK: www.scie.org.uk.

"Nobody can be happy
without participating in
public happiness, no one
can be free without the
experience of public
freedom, and no one
ultimately can be happy
or free without getting
involved and being part
of political power".

HANNAH ARENDT



Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Ingrid Agud (Koord.)

Ana M. Novella

Aida Urrea

Angelina Sánchez

Ainhoa Navarro

UNICEF ESPAINIAKO BATZORDEA

Maite Pacheco

Nacho Guadix

Óscar Belmonte

Amaya López de Turiso

Lucía Losoviz

Silvia Casanovas

Lara Iñiguez

ISBN: 978-84-948540-1-9

Edizioa: maiatza 2018



Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) finantzatutako proiektu baten parte da. UNICEF Espainiako Batzordea da argitalpen honen edukiaren erantzule eta ez du zertan AECIDen iritzia adierazi.

Finantzatzaileak:

